

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Lehen Hezkuntza 2. zikloa

ARLOA/IKASGAIA: Natura, gizarte eta kultura ingurumenaren ezagutza

Hegaztien eta haien habitaten behaketan eta identifikazioan oinarrituko gara oraingoan. Prismatikoak eta gidak hartuta espezieak hobeto ezagutzeko benetako ornitologoak bihurtuko gara. Hegaztiak behatu (uretan, adarren artean, marearteko eremuan...), eta haien ekosistemak aztertuko ditugu.

Gainera, eraztungile bihurtuko gara une batez espezie liluragarri hauek nola ikertzen eta zaintzen dituzten jakiteko. Eta auskalo! Agian, urrutiko lurretatik milaka kilometro egin dituen hegazti migratzaileraren bat ikusteko zortea izango dugu.